ASTEKARIA | 2017ko martxoaren 3an | XX. urtea | USURBIL | 690. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua

Bi lanpostu betetzeko lan deialdia egin du Udaletxeak

Martxoaren 8ko egitaraua, prest

Udarregi ere KiVa ikastola da



Argazkia: Lurdes Hueta

# Inauteri Festa, aspaldiko jendetsuena


AMERIKETAKO ESTATU BATUAK
MENDEBALDEKO KOSTA
Irteera Lasarte-Oriatik, NOAOA BIDAIAK-ek lagunduta
MAIATZAK
14-28
ezagutu...
Los Ángeles
Grand Canyon
Las Vegas
Yosemite
San Francisco
eta askoz gehiago!
NOAOA BIDAIAK

FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, USURBIL
AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:
·GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ GESTIONATU NAHI BADITUZUE DENATAZ ARDURATZEN GARA:
·HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
·HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ
(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK, UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA EDO BESTE HILERRI BATERA...)
OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)
943 36 21 63 (24H)
AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE
·BEILATOKI GUZTIAK ·ERRAUSKETAK
·EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...) HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. DENATAZ ARDURATZEN GARA

ARTZABAL
Obragatik itxita!
martxoak 9, 19:00etan berinaugurazioa,
kantu jira, pintxoak, kontzertua...
Gonbidatuta zaudete!!

## Albistea iruditan

# “Elkarrekin ospatu genituen Inauteriak”

Aurrekoan, Haur Eskolan bertan jarri diguten belardiaren berri eman genizuen. Eskola barruan ere aldaketak egon dira. Eguneko Zentroko aiton amonekin konpartitzen dugu lehenengo solairua. Egun, gehiago ikusten ditugu pasaran… eta hilean behin bisita egiten diegu aspaldiko ohiturari jarraituz. Joan den ostiralean Inauteriak ospatu genituen elkarrekin! A ze festa!

Baina eskolatik kanpo ere egiten ditugu gauzak! Euria edo hotz handirik ez badu egiten, jertseak eta berokiak jantzi ostean, soka hartuta bagoaz paseatzera! Kalexarretik barrena txakurrak, katuak, oiloak eta ardiak ikusten ditugu. Duela gutxi, arkume txiki asko jaio ziren eta titia nola hartzen zuten ikusi genuen. Ogi zaharra eramaten diegu batzuetan, gustura jaten dute ardiek eta oiloek. Gehienetan, urrutitik entzuten gaituzte eta ziztu bizian gerturatzen dira guregana.

Herriko parke ezberdinetara joaten gara hamaiketakoa egin eta jolastera. Herrira asteazkenetan jaisteko aukera dugunetan, azoka bisitatzen dugu batzuetan… azeituna goxoak saltzen dituzte bertan! ummm…


**Haur Eskolako ikasleak Eguneko Zentroan izan ziren, Inauterietako ikuskizuna eskaintzen.**

Paseatzen goazela, kaletik edo etxeetako leihoetan senideak ere ikusten ditugu tarteka, orain harro agurtzen ditugu... baina ikasturte hasieran tristetu egiten ginen…

Laster, udaberri aldera, ikastolara joaten hasiko gara, datorren ikasturtean hara joango baikara... ikastola handira! Handitzen-handitzen! Hurrengoan, orain guretzat “txikiak” direnak idatziko dituzte hemen Kalexarko haur eskolako kontakizun eta gertaerak.

**Udarregi Ikastolako**
**Haur Eskolako ikasleak.**

## Laburrean

### Martxoan goizez irekiko dute KzGunea

Martxoan, 09:00etatik 13:00era zabalduko dute KzGunea. Lehen ikastaroa, hauxe: “Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi” (Martxoak 1-14, 09:00-11:00).

### Astelehenean odol ematea anbulatorioan

Datorren astelehenean, martxoaren 6arekin, arratsaldeko 18:00etatik 20:30era odola emateko aukera izango da. Deitzailea: Usurbilgo Odol Emaileen Elkartea.

### “Sagarrondotik sagardora” ikastaroa Potxoenean

Larunbat honetan, “Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak” hitzaldia, Aitor Etxeandiaren eskutik. 09:00etik 13:00era Potxoenean. Informazio gehiago, Alkartasunan: 943 361 114.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege–Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Usurbilgo Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskal presoak
Euskal Herrira!

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.**



**Luken Arkarazo**

# Deiadarra

Askotan badirudi politikoki okerra dela ondo egindakoetaz ozen eta harro hitz egitea. "Ibili Erori eta Altxatzearen" oinarrizko legeari men eginez edo, beti okerren inguruan mintzatzen gabiltza. Nolabaiteko pekatua edo ganoragabetasuna izango balitz bezala. Horrela, arrakastaz eta garaipenez zipriztindutako gertakariak pixkanaka pixkanaka ahazturaren zingiran erortzen dira. Denboraren orratzen pisuaz gertakaria istorio bilakatzen da, eta oharkabean istorioa, inork zehaztu ezin duen aspaldiko kondaira batean. Ni zorionez edo zoritxarrez ez naiz horietarikoa, eta gaurkoan hori garbi uztera nator.

Esan ozenki eta harro nirekin batera: "Azken bi urteetako Santixabelak. Ikaragarriak izan dira" ez lotsatu, zure erraietan errepikatu. Badakizu halaxe izan dela, hor egon zarelako, gauaz eta egunaz gozatzen, kaleak eta ekimenak jendez lepo ikusten eta partaide izaten. Baina nire galdera da: ba al dakizu zergatik izan den? Uste dut badela garaia kalean bolo-bolo dabilena paperean islatu eta horren inguruko analisi txikitxo bat egiteko. Santixabelek salto kualitatibo eta kuantitatibo bat eman dute, hori ezin da ukatu. Hauexek nire ustez, Txosna eta Jai batzorde orokorreko partaide gisa, arrakastaren arrazoiak:

1.- Txosna Gunearen leku aldaketa. Askotan esaten da heriotzari begietara so egin behar izaten zaiola aldaketa ezinbestekoa dela konturatzeko. Azken urteetan Askasuna Plazan bizitakoak tristura eta amorrua ematen zuen. Arrazoi ezberdinak medio, gazterik gabeko gazte gunea bihurtu zen, arima bako gorpua lez. Honela, Mikel Laboara eginiko exodoa sekulako hauspotze jarduera izan da. Txosna gunea eta bere egitaraua herriko zirkuituan integratuz, gazte gutxi batzuk elkartzen zituen gunea izatetik, adin guztietako herritarrak elkartzen dituen topaleku bihurtu delarik.

2.- Kontzertu handiak ostiraletik larunbatera igarotzea. Ze logika zuen, kanpotik jendea ekartzea helburu duen ekimen nagusia (eta garestiena), kanpotik etortzeko baldintzarik ez zegoen unean antolatzeak? Ostiraletan ez dago garraio publikorik. Nabarmen gelditu zen Betagarrik duela bi urte emandako kontzertuan eta ziurtatu pasa den urtean, Hesianekin lehenbizi eta ondoren Las Tea Party-rekin Txosna Gunean egon zen giro itzelean. Hau gutxi balitz, ostiralean dantzaldia ipintzeak herriko jende helduago bati gauaz frontoian sortzen den giro apartaz gozatzeko aukera ematen die, modu intimoago batean, larunbatean egon daitekeen giro aldrebesagoa ekidinez. Pasa den urteko Anje eta Nikoren show ahaztezina aipatzearekin denok ulertuko didazue.

3.- Solapazioen amaiera: dantzarako bi gune nagusien arteko errespetua bermatzea klabea izan da. Ezin genuen onartu Usurbil bezalako herri batean, ehun metro karratuetan aldi berean bi kontzertu edukitzea. Frontoian erromeri batean milaka euro ordaintzen egon lau katuren aurrean jotzeko, Txosna Gunean Bertsio Gaua dagoen bitartean, eta alderantziz. Azken bi urteetan hori aldatzea lortu dugu, hitz eginez eta akordioetara iritsiz.

Hiru hauetaz aparte eguraldia, data egokiak, arrakastak jendearengan sortzen duen gogoa, igande goizetako txaranga… beste hainbat dira Santixabeletako eraldaketa potentzialaren atzean dauden arrazoiak. Baina hau guztiaren aurrean, nire gaurko galdera da, eta orain zer? Festek salto kualitatibo eta kuantitatibo bat eman duten bezala, ezinbestekoa izango da antolakuntza mailan ere aurrera pauso bat ematea.

Txosna Batzordeko kide bezala eta azken bi urteetan Gunean bizitako egoera oroituz, ezinbestekoa deritzot herriko gazteen parte hartze anitzago bat. Gaur egun Txosna Batzordeko % 90a 19 urtez azpikoa da. Nola liteke? Sekulako belaunaldi haustura dago Gazte Egitarauaren antolakuntzan. Ondorioz, ikastea zegokion gazte talde batek ardura potoloak hartu behar izan ditu. Esperientzia eza eta ardura astunegiak ez dira bidelagun izaten, baina erlojuaren aurkako proba baten modura egokitu dira. Hala ere, garbi geratu da laguntza beharra dugula. Izan ere, Santixabelek gorantzko inertzia hartu dute eta eskailerari eusteko gero eta jende gehiago behar da.

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | **Luken Arkarazo** | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

# "Uztaberri", Errigoraren bi kanpaina batean

*Neguaren ostean, Uztaberria dator.* Uztaberri berde eta bakarra. Honatx Errigorak abian duen elkartasun kanpaina berria.

Nafarroa hegoaldeko produktuak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan eskuratzeko aukera dugu berriz. Oparo dator; aurreko urteetan, martxoan egin ohi duen oliba-olioaren eta maiatzeko kontserben kanpainak bateratu dituzte aurtengoan, gogorarazten dutenez "urtean bi udaberri izango bagenitu, bigarrena ez litzateke berria izango" eta.

Horregatik Uztaberri bakarra izango dugu. Eta aipatu moduan berdea, baita. "Izan ere, lehenengoz, Eskutik Eskura eskaintzen diren produktu guzti-guztiak ekologikoan eskuratu ahal izango dituzu. Udazkenean, Errigorago joan eta izatearekin amestu genuen. Bada, aurtengo eskaintza berdearekin, hasi gara dagoeneko ametsak egia bihurtzen, nekeza izan bada ere".

## Eskaerak NOAUA!n

■ Eskaerak egiteko epea: martxoak 1-14.

■ Eskaerak non: NOAUA! K.E.-ren egoitzan.

■ Eska daitezkeen produktuak: 5 litroko oliba-olio birjina estra edo ekologikoa, pikillo piperrak, zainzuriak, orburuak, barazki-menestra, potxak, tomate frijitua, barazki-, kalabaza-, porru- eta brokoli-kremak. Produktuok lote ezberdinetan erosteko modua izango da.

■ Ordainketak, produktuak jasotzerakoan: oliba bidoien banaketa martxoak 30-31 egingo dugu eta kontserbena ekainaren 1 eta 2an.

■ Informazio gehiago: errigora.eus web orrian edo NOAUA!n (943 360 321 edo elkartea@noaua.eus)

# Bi lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak

*Operario 8* motako bi udal lanpostu betetzeko deialdia egin du Usurbilgo Udalak.

■ Prozedura: lehiaketa-oposaketa irekiaren bidez.
■ Lan jarduna: urtero Udalak zehazturikoa, "horretarako lanpostuaren izaera eta behar bereziak izango ditu kontuan".
■ Baldintzak: Europar Batasuneko kide diren estatuetako baten herritartasuna izatea, 16 urte edukitzea eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Eskola ziurtagiria edo baliokideren bateko titulua edukitzea, C1 gidabaimena izatea, diziplina-espediente bidez inolako Administrazio Publikotatik kaleratuta ez egotea, zereginak egoki betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea, ezgaitasun edo bateraezintasun egoeran ez egotea eta 1. hizkuntz eskakizunari dagozkion euskara-ezagupenak dituela frogatu beharko du.
■ Azterketa probak: hautagaiek lau azterketa igaro beharko dituzte. Lehen ariketa teorikoa izango da (nahitaezkoa eta baztertzailea). Bigarrena, teoriko-praktikoa. Hirugarrena, praktikoa. Laugarrenaren emaitza, azkenik, Gai - Ez Gai bezala emango da.

Oposizioaren proba guztiak gainditu eta izendatuak ez diren izangai guztiak lan-poltsa batean sartuko dira, lortu duten puntuazioaren araberako hurrenkerarekin, eta sail horretan sortzen diren aldian aldiko beharrak betetzeko erabiliko du Udalak.



Udaletxean jasoko dituzue xehetasun gehiago.

*LAN DEIALDIA*

***"Oposizioaren proba guztiak gainditu baina lanposturik lortzen ez dutenak lan-poltsa batean sartuko dira"***

### Udajolasen begirale aritzeko deialdia

Usurbilgo Udalak eta NOAUA! Kultur Elkarteak uztailean antolatu ohi duten Udajolaserako arduradun eta begiraleak behar dira.
Profila:
■ 2 urteko esperientzia.
■ Zuzendari titulua izatea.
■ Begirale titulua izatea.
■ EGA edo baliokidea den agiria izatea.
■ Sexu delitua egiteagatiko aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
■ Usurbildarrek lehentasuna izango dute.

### NOAUA! astekaria banatzeko lan poltsa

Gaur egungo banatzaileren batek bere lana utziko balu, ordezkoa beharko genuke. Horretarako osatu nahi dugu lan-poltsa.
■ Lan deialdion inguruko informazio gehiagorako eta Curriculumak bidaltzeko:
elkartea@noaua.eus
943 360 321
Bordaberri, 3

**Ika-Mika**

# Martxoaren 4an Hernanin, gipuzkoarrok dantzan independentziara!

Udaberri honetan Gipuzkoako hainbat herritan izango dugu Euskal Herriko etorkizunaz erabakitzeko aukera. Izan ere, Gure Esku Dago dinamikaren baitan asko dira herriz herri antolatzen dabiltzan herri galdeketak. Tartean, Usurbil eta Zubieta. Galdeketa hauen harira, Ernaiko kideok garbi dugu zein izango den gure erantzuna: euskal estatua nahi eta behar dugu, posible da.

Euskal Herria bi estatu zapaltzaileren menpe dago gaur egun. Demokraziari beldur dioten bi estatu. Etengabeko uko eta oztopoak jartzen dituzten Espainia eta Frantzia. Auzia ez da euskal herritarrok independente izan nahi dugun edo ez, etorkizuneko Euskal Herriari buruz askatasunez erabakitzeko eskubideaz ari gara hizketan.

Euskal estatua behar dugu gure buruen jabe izan gaitezen. Gure buruen jabe, herri eredu justu, demokratiko, parekide eta euskalduna eraiki nahi dugulako. Era duin batean lan, ikasi eta bizitzeko aukera emango digun herria. Euskal estatuak ez digu gure nahiak zuzenki lortzea ahalbidetuko, baina helburu horiek lortze bidean ezinbesteko tresna da.

Ez gara, gainera, utopia batez ari. Posible da euskal estatua epe motz edo ertainean erreala izatea. Horixe ari zaizkigu kataluniarrak erakusten. Ezinezkoa da Frantzia eta Espainia demokratizatzea, eta beraz, gure kabuz egin behar dugu ahalegina lehen aipaturiko nahi horiek bete daitezen.

Horregatik guztiagatik, Gipuzkoako gazteak martxoaren 4an Hernanin elkartuko gara independentziaren aldekotasuna adierazteko. Aldarrikapen eta festa egun honetan, orotariko ekimenak izango ditugu. Goizeko 11:00etan prozesu independentista gazteok nola bultza dezakegun eztabaidatuko dugu, eta arratsaldeko 17:30ean, berriz, Gipuzkoako eskualdeen arteko olinpiadez eta elektrotxarangaz gozatzeko aukera izango dugu. Gazte akelarre bat irudikatuz osatuko dugun ekitaldiarekin emango diogu amaiera arratsaldeari; eta gaueko 22:30etik aurrera, ondorengo taldeen kontzertuak izango ditugu: Odolaren Mintzoa talde usurbildarra, Huntza eta Guri5.

Usurbildik ere ozen adierazi nahi dugu independentziaren aldeko gure hautua, eta oihua sendoa izan dadin, Hernanira gonbidatu nahi zaitugu gazte! Bertan ikusiko dugu elkar!

**Usurbilgo Ernai**

# Zubietako galdeketa aurkezteko, herri agerraldia antolatu dute

Prozesu luzeago eta sakonago baten abiapuntua izatea nahi dute, zubietarrek maiatzaren 7rako deitu duten galdeketa. Larunbat honetan, martxoaren 4an, 12:00etan aurkeztuko dute errebote plazan. Herri agerraldi honetara gonbidatu dituzte zubietarrak.



Larunbat honetan eguerdiko 12:00etan egingo den agerraldira gonbidatu dituzte zubietarrak.

**NOAUA! Zergatik erabaki duzue galdeketa propioa antolatzea Zubietan?**

**Zubietako galdeketaren antolaketa taldea:** Usurbilen galdeketa antolatzea proposatu zenean, dituen berezitasunak kontuan izanda, Zubietak nola parte hartu beharko lukeen planteatu zen. Zubietak Usurbil eta Donostia ditu udalerri, herri izaera propio bat du. Hori kontuan izanda, galdeketa hau nola antolatu beharko litzatekeen iritziak eskatzen hasi ginen; Usurbilen barruan egin beharko litzatekeen, Donostia barruan, Zubietak bere galdeketa propioa egin beharko lukeen. Bi udalerrien artean dauden desadostasunen ondorio bezala Zubietak ez du zentralitaterik hartu eta galdeketa hau behar genuela ikusi genuen, galdeketa horren emaitza eta gure herri izaera hori bi udalek errespetatu dezaten. Erabaki hau hartzeko beste arrazoietako bat izan zen, guk ere gure txikitasunetik posible dugula eta erakustea. Herri batzar bat deitu, taldetxo bat biltzen hasi eta Zubietak bere galdeketa propioa antolatzen hastea erabaki zuen.

ANTOLAKETA TALDEA

*"Aukera hau baliatu nahi dugu, zubietarrok gure herri aitortza mahai gainean jartzeko"*

**Larunbatean aurkeztuko dituzue galdeketaren nondik norakoak. Zer adierazi nahi duzue?**

Zubietarrok herri bezala beti aitortu dugu bagarela desberdin, gure herri izaera propioa dugula baina inoiz ez garela ausartu publikoki jauzi bat ematera. Aukera hau baliatu nahi da, zubietarrok gure herri aitortza mahai gainean jartzeko. Martxoaren 4ko ekitaldian, Euskal Herriko etorkizunaz guk herri moduan erabaki nahi dugula irudikatu nahi dugu. Herri baten adierazpena izatea nahi genuke. Herriaren agerraldi publikoa. Ia jendea animatzen zaigun.

**Maiatzaren 7ra arte jorratuko duzuen bidea Usurbilen jorratzen ari direnaren antzekoa izango da?**

Prozedura antzekoa izango da, epez mugatuagoa, Usurbilen lehenagotik hasia baitago prozesua. Baina Usurbilen bezala, galdeketa babesteko sinadura bilketa bat egin nahi genuke. Galdera ere herritarren gehiengo zabal batekin adostu nahiko genuke. Maiatzaren 7ko prestaketa lanetan ere ahalik eta jende gehienaren parte hartzea eskatu nahi genuke.

**Galdeketa zubietarrok herri bezala erabakitzen hasteko lagungarria suertatuko da.**

Horretan ari gara. Azkeneko herri batzarreko hautaketan hainbat lehentasunen artean ikusten genuen herri sentimendu eta ikuspegi hori landu behar genuela. Galdeketa lagungarri gertatzen zaigu, herrian pizten ari den herri sentimendua bultzatzeko.

## Argazki erraldoia aterako dute Errebote plazan

■ Martxoak 4 larunbata, 12:00etan Zubietako Errebote Plazan.

■ Egitaraua: galdeketa bideratuko duen elkartearen, logoaren eta manifestuaren aurkezpena. Argazki herrikoia aterako da. Herriko eragileen parte hartzea, Asier Azpiroz bertsotan, jan edana, manifestua sinatzeko aukera…

■ Oharra: galdeketa antolatzeko taldea asteartero biltzen da 19:00etan Zubietako Kaxkapen.

■ Antolatzailea: Zubietako galdeketa antolatzen ari den herritar taldea.

### Aginagako Txokoetan, izen ematea zabalik

Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak apirileko oporraldirako txokoak antolatu ditu haurrentzat Aginagako ludotekan. Zehazkiago esanda, egunotan: apirilaren 10, 11, 12, 18, 19, 20 eta 21ean. Goizez izango dira, 09:00-13:00 artean. 09:00-10:00 artean sartu ahalko dira txokoetan parte hartu nahi dutenek.

Izena martxoaren 17a baino lehen eman beharko da, aginaga@eskolatxikiak.org helbidera idatzita.

Txokoetako prezioa, apuntatu den haur kopuruaren arabera zehaztuko dute.

### Udal dirulaguntzak eskatzeko garaia da

Usurbilgo Udalaren diru-laguntza deialdian parte hartzeko epea martxoaren 13ra arte egongo da zabalik. Udalak guztira, 168.000 euro bideratuko ditu kultura, kirola, gizartegintza, nekazaritza eta abeltzaintza, ingurumen edota igogailuen instalakuntza proiektuak sustatzera. Informazio gehiago, Udaletxean: 943 371 951 / usurbil.eus

### Hilerri zaharra hustutzeko, hiru hilabeteko epea

Familiartekoen gorputz-hondarrak berreskuratu nahi dituztenen kasuan, hiru hilabeteko epea izango dute. Gainerakoak, Udalaren gain geldituko dira. Udaleko zerga-bilketako leihatilean izango da zuzeneko informazioa jasotzeko aukera, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 14:00etara. Izen ematea berriz, udal erregistroan egin beharko dute, horretarako eskuragarri izango den inprimakiaren bitartez.

# Kontsultarako galdera adosteko garaia da

Galdera zehazteko ardura duen lantaldeak 3 galdera posible proposatu ditu eta behin-betikoa erabaki aurretik, herritarren iritzia jaso nahi du Herritzartuk.

**Galdera adosteko prozesua**

Galderen artean egokiena zein iruditzen zaien adierazi ahal izango dute herritarrek martxoaren 12ra bitartean, bide ezberdinak erabiliz:

■ Whatssapp mezu bidez: 634 44 55 12.

■ Email bidez: usurbilgureeskudago@gmail.com

■ Facebook eta Twitter sare sozialen bitartez.

■ Etxez etxe banatuko diren esku-orrietan galdera egokiena aukeratu eta eskuorria horretarako apropos jarriko diren kutxetan sartuz. "Kutxa hau martxoak 3-4-5 egunetan jarriko dugun mahaian egongo da", Herritzartuk adierazi duenez.

**Igande honetan, udal ordezkarien atxikimendua**

■ Igande honetan, eguerdiko 12:00etan Udaletxeko plazan. 1979tik hona Usurbilgo alkate eta zinegotzi izan direnak batzeko ahaleginean dabil Herritzartu plataforma. "Ordutik hona ia legegintzaldi guztietan plazaratu izan du Usurbilgo udalbatzak, gehiengo osoz, erabakitzeko eskubidearen aldeko iritzia. Gure ustez, oso garrantzitsua da urte hauetan guztietan herrian ardura instituzionala izan duten hautetsiak batzea, alderdi guztietakoak, manifestuari beren atxikimendua emateko eta Maiatzak 7ko galdeketari, denen arteko argazki baten bidez, bultzada emateko. Ziur gaude ekimen honek eta argazki horrek herritarrak izugarri poztuko ditueela. Gure arteko ezberdintasun politikoak alboratu eta batzen gaituen erabakitze eskubidearen alde elkarrekin jarduteak eskubide honek behar duen ezinbesteko bultzada dela ulertzen baitugu".

**Martxoaren 19an, Tonbola**

Martxoaren 19an, Hurbilagok antolatutako Bizi Kalea festaren barruan, Herritzartu eta Hurbilagoren eskutik tonbola ipiniko da. "Sari guztiak martxoaren 19an bertan banatuko dira, baina tonbolarako errifak laister egongo dira salgai, Bizi Kalea antolatzen duten tabernetan, euro baten truke".



**Galdera egokienaren alde agertzeko bideak martxoaren 12ra arte egongo dira zabalik. Argazkia: Herritzartu.**

# Martxoaren 8ko egitaraua prest

Matrakak Usurbilgo Talde Feministak eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak elkarlanean josi dute jada, Martxoaren 8ari begirako egitaraua. Girotzeko 28. Lilatoia ospatuko da igandean Donostian. 5.785 emakumeek eman dute izena, tartean 64 usurbildarrek (kirolprobak.com atarian duzue zerrenda). Bestalde, gai honi loturiko mozioa aurkeztu eta onartzekoa zen udalbatza, otsailaren 28ko osoko ohiko bilkuran. Xehetasun gehiago datorren astekarian.


**Igande honetan, Lilatoia. Aurten ere, usurbildarren argazkia atera nahi da.**

*USURBILDARRAK LILATOIAN*

***Igande honetan goizeko 10:00etan, Donostiako Bulebarrean argazkia aterako dute***

### Martxoak 5, igandea: 28. Lilatoia Donostian

■ 10:00 Usurbildarren argazkia Donostiako Bulebarreko erloju ondoan.

■ 10:30 28. Lilatoia Donostiako Bulebarretik. Informazio gehiago: lilaton.es

### Martxoak 10, ostirala

■ 21:00 "Testurak" bertso-afaria Artzabalen.

■ Parte hartuko duten bertsolariak: Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labaka.

■ Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

■ Menua: pikatzekoa, entsalada epela, entrekota eta gazta tarta. Edaria eta kafea.

■ Prezioa: 16 euro.

■ Txartelak: Aitzagan eta Bordatxon salgai.

### Martxoak 12, igandea

■ 18:00 "En transito" dokumentala eta solasaldia Sutegiko auditorioan.

■ Zehaztasunak: "Bidez Bide Elkartea, Donostiatik Gipuzkoa mailan lan egiten duen elkarte txikia da. Feminismotik lan egiten dute. Hori dela eta, Oscar Tejedor zinemagilearekin batera egin dute "En Tránsito" dokumentala. Lan honek zaintza lanak kokatzen ditu erdigunean, Latino Amerikatik EH-ra migratutako hainbat emakumeek, euren seme-alabekin ezartzen dituzten harremanak nolakoak diren eta zaintzaren gestioa nola egiten duten erakusten duelarik. Finean, dokumentalak zaintza lanen kate globalek emakumeen bizitzetan duen eraginaz, amatasun transnazionaletaz edo zaintza lanen feminizazioaz hausnartzera garamatza. Proiekzioaren ostean, Soraya Ronquillorekin mintzaldia egiteko aukera izango dugu".
Oharra: gaztelaniaz.

### Martxoak 18, larunbata

■ 10:00-14:00 / 15:30-19:30 Autodefentsa feminista tailerra Potxoenean.

■ Izen ematea aurrez, Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailean: 943 377 110 parekidetasuna@usurbil.eus

Antolatzaileak: Matrakak Usurbilgo Talde Feminista eta Usurbilgo Udala.



**Aginagako, Usurbilgo eta Zubietako gazteak**

# Gazteontzat bi deialdi berri datozen asteetan!



**Otsailaren 17an hainbat gazte batu ziren Potxoenean.**

Aginaga, Usurbil eta Zubietako gazteak martxan gara. Ez gara inoren zain egongo, eta gazteok bizi ditugun arazo ezberdinei geronek emango diegu soluzioa. Hemen ere, hainbat dira gazteon kezka eta hutsuneak, eta horiei aurre egiteko, alternatibak sortzen hastera goaz.

Helburu horrekin bildu ginen lehengo ostiralean Potxoenean, Aginaga, Usurbil eta Zubietako 30 bat gazte. Lehenengo hartuemana arrakastatsua izan zela esan genezake, beraz. GAZTERAIKI topaketetan parte hartu zuten herriko gazteek bideratu zuten bilera ireki hori, Euskal Herri mailan lanean dabilen gazte mugimenduaren ikuspegi hori lehenengo pertsonan kontatzeko herriko gazteei.

Eztabaidari hasiera emateko, eta Euskal Herri mailan gazte mugimendua hainbat ildoren inguruan hausnartzen dabilenez, ildo nazionaletan lanean ari diren bi usurbildarren testigantzak entzun genituen: komunikazioaren eta kirolaren esparruetan lanean dabiltzanak. Nolabait ere, ikuspegi praktikoa erakutsi eta ideia berriak herrira ekartzeko esperientzien aukerak ikustarazten lagundu ziguten.

Ikuspegi praktiko hau jasota, bi lan taldetan banatu eta herrian bertan egin dezakegunaz jardun genuen. Horretarako, Usurbilgo Ernaik uztailean burutu zuen gazte eragileen diagnostikoa oinarri hartuz, herriko gazte askok jai batzordeetan aktiboki parte hartzen zuela konturatuta, jai ereduen berariazko lanketa batek herriko gazteengan interesa izango zuela ondorioztatu genuen. Beste lantaldeari dagokionez, berriz, aukera irekia utzi zen gazteek beraiek intereseko eremu ezberdinak plazara zitzaten.

**DEIALDIA**

***"Martxoaren 3 ostirala, 17:30ean Potxoenean: Jai ereduen inguruan hausnartzen jarraituko dugu"***

Lehen taldean herriko jai batzorde gehienetan parte hartzen zuten gazteak bildu ginen, baita gure herriko jaietan hainbat hutsune ditugula ohartu ere: hala nola, musikaren erabilera, erasoen aurreko protokolo falta, bertako produktuen erabilera urria… Hutsune hauek hobetze aldera eta festa osoago eta kontzientziatuagoak antola ditzagun, jai batzordeen arteko elkarlan bat bultzatzea interesgarritzat jo genuen.

Gainontzeko gazteak intereseko lanketa eremuak identifikatzen aritu ginen: bi izan zirelarik gehien azpimarratu zirenak; Euskara eta kirol eredua. Usurbilen, hutsune handi bat aurkitu dugu jarduera fisikoaren eta kirolen esparruan. Lehia baztertzailearen inertziari jarraituz herriko ehuneko txiki batek besterik ez du gozatzen jarduera fisikoaz eta kirolaz, izan ere, kirol klub federatuen eskaintzara mugatuak gaude. Aukera honetatik kanpo geratzen den gehiengoak ez du aukera alternatiborik. Hortaz, gozamena eta ongizatea bilatuko duen esparru parekide, inklusibo eta aske bat sortzea izango litzateke arlo honetako proiektu alternatiboa. Beste eredu bat posible dela pentsatzen dugunez, arlo honetan interesa dutenekin elkarlanean, hala nola, eskola kirolean eraikuntza lanetan ari den taldearekin, herriarentzako sekulakoa izan daitekeen eskaintza berritzaile batean sinesten dugu. Hots, epe motzeko helburu gisa, urtero frontoian antolatzen den futbito txapelketan lanketa bat egitea pentsatu dugu.

Bigarren lan talde honetako beste kezka, herriko euskararen egoera izan zen. Orain arte ezinezkoa zena errealitate bihurtzen ari dela nabarmendu zen: belaunaldi berriak txikitatik euskararekiko lotura galtzen hasi dira: gazteleraz hitz egiteko joera eta hitanoaren beherakada nabarmendu zirelarik arazo larri honen adierazgarri gisa. Errealitate hau herrian azaleratzearen eta honi konponbide inklusibo bat ematearen garrantzia azpimarratu genituen.

Hau guztia lantzen jarraitzeko irrikaz gelditu ginen lehengo ostiralean bildu ginen gazteok, eta dagoeneko bi hitzordu zehaztuta ditugu!

■ Martxoak 3, ostirala, 17:30tan, Potxoenean: Jai ereduen inguruan hausnartzen jarraituko dugu. Identifikatutako arazo horiei buelta emateko hainbat tresna sortu eta martxan jarri nahiko genituzke, elkarlanean. Horregatik, jai batzorde guztiei luzatzen dizuegu deialdia, eta interesa duen edonor ere gonbidatua dago!

■ Martxoak 10, ostirala, 17:30tan, Potxoenean: beste intereseko eremuak lantzen jarraituko dugu, eta batez ere, helburutzat ildoak jorratzeko ekimen eta ideia zehatzak proposatzea daukagu.

Zuri ere, kezka hauek eta besteren batzuk aztoratzen bazaituzte, ez lotsatu, gerturatu, alternatiba elkarlanetik abiatuko dugu!

**Aginagako, Usurbilgo eta Zubietako gazteak.**












MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

#erronkarakoprest



Jon Arrizabalaga

Gernika. Lidergo Ekintzailea
eta Berrikuntza, 3. maila.

## GRADUKO ATE IREKIAK

### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**GOIERRI · MARTXOAK 4**
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**ORONA IDEO · MARTXOAK 11**
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**ARRASATE · APIRILAK 27**
OSTEGUNA, 17:30 / Areto Nagusia

### ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

**BIDASOA · MARTXOAK 4**
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**BILBAO · MARTXOAK 9**
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

**OÑATI · MARTXOAK 11**
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**ESKORIATZA · APIRILAK 6**
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA · APIRILAK 6**
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

### GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

**DONOSTIA · MARTXOAK 18**
LARUNBATA, 10:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

www.mondragon.edu/prest

902 110 436








EZ












GREEN














ALDE!
















GAROÑA
ITXI ORAIN!








Klik! batean

# Rock & rolling

Zü eta ni
biak goxoki
Inauterietan rock & rolling

Argazkia: Ion Markel















**Orrialde honetako argazkiak: Lurdes Hueta.**



**Zubietako Eskola Txikiko ikasleak ostiralean atera ziren plazara.**



**Aginagako Eskola Txikiko ikasleak eta irakasleak.**






**Inauteri Jai bezperan, Udarregi ikastolako ikasleek ikuskizun aparta eskaini zuten Oiardo Kiroldegian.**
**Inauterietako argazki bilduma osoa, noaua.eus web orrialdeko argazkitegian.**

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO
BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA
MARTXOAK 16, OSTEGUNA - POTXOENEAN

1. deialdia 18.30ean / 2. deialdia 19.00etan

GAI-ZERRENDA:
1) 2016ko memoria eta balantze ekonomikoa
2) 2017ko egitasmoak eta aurrekontuak
3) Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
4) Galdera erantzunak

noaua



# Udarregi ere KiVa Ikastola da

Urte hasieratik eskola jazarpenaren aurkako programa abian jarri duten 52 ikastolen artean da Udarregi. Gaurkoz Lehen Hezkuntzan jarri dute martxan, Finlandiatik etorri eta eskola jazarpen kasuak modu nabarmenean murriztea lortu duen egitasmo berritzaile hau. Eskola jazarpena, ez da gaur egungo arazoa, ezta haren aurka ikastolatik burutu duten lanketa ere. KiVak lanketa hau sendotu eta egituratzea ekarriko duela adierazi digute, Udarregiko ikasketa buru Beñat Larrañaga Urdanpilletak eta KiVA programako arduradun Eli Goikoetxea Rotetak NOAUA!ri eskaini dioten elkarrizketa honetan.



Finlandiatik etorri eta eskola jazarpen kasuak modu nabarmenean murriztea lortu du egitasmo berritzaile honek.

**NOAUA! Zer da zehazki eskola jazarpena?**

**Eli Goikoetxea Roteta:** Hiru baldintza bete behar dituen tratu umiliagarria. Nahita egindakoa, errepikakorra izan behar du eta botere erlazio bat egon behar du. Hiru baldintza horiek betetzen badira, jazarpen egoera dela esaten da.

**N. Finlandiakoa da egitasmoa. Zer eragin izan du programa honek sorterrian?**

**E.G.R.:** Jazarpen egoeren aurrean, Finlandiako Hezkuntza Sailak eskatu zion Turkuko Unibertsitateari zerbait egitea. Programa pilotu bezala jarri zuten martxan 2007an. Urte guztiotan oso emaitza onak eman ditu. Jazarpen kasuak asko murriztu dira. Mundu mailan lurralde desberdinetara zabaldu da. Gugana ere iritsi zaigu.

BEÑAT LARRAÑAGA

*"Lehen ere jarraipena egiten zen, baina era isolatuago batean. Aldaketa handiena hor dakar KiVak, egituratutako prebentzio lana. Jarduera piloa horretara bideratua dago orain ikuspegi horrekin"*

**N. 52 ikastolek jarri dute martxan programa.**

**Beñat Larrañaga Urdanpilleta:** Ikastolen Elkartearen apustu bat da. Ikastola asko animatu dira.

**E.G.R.:** Iazko otsailean jardunaldi pedagogikoak antolatu zituen Ikastolen Elkarteak. Ikastola ezberdinak joan ginen. Finlandiako unibertsitatekoak etorri ziren. Jardunaldiotan proiektua aurkeztu ziguten, nola lan egiten zuten. Uste baino ikastola gehiagok eman zuten izena. Ikastolen Elkartearen helburua, geroz eta gehiago zabaltzea da.

**N. Emaitzak ikusita, eskuzabalik hartuko zenuten egitasmoa Ikastolan?**

**B.L.U.:** Udarregin sentsibilitate berezia dugu gaitegi honekiko. Beti egin izan dugu gai honen inguruko lanketa, tutoretza eta baloreen ikasgaietan. KiVa programak hori guztia askoz antolatuago izaten lagunduko digu. Hau aukera bat izan da, egiten dugun lanketa hori sendotu eta hobetzeko.

**E.G.R.:** Funtzionatzen duela erakutsi duen egitasmo bat dela jakinik, horrek segurtasuna ematen du.

## "Lehen Hezkuntzan eskuhartzeak hiruzpalau egin izan ditugu eta denak ez dira jazarpenera heltzen"

**NOAUA! Programa honen aurretik bazenuten egoeroi aurre egiteko baliabiderik?**

**E.G.R.:** Berez Hezkuntza Sailak protokolo bat du. Guk askotan, kasuotara iritsi gabe, lagun artean arazoak sor daitezkeela ikusten dugunean beti egiten ditugu eskuhartzeak orientazio departamendutik, elkarriz–ketak beraiekin egiten ditugu beti. Orain ere pausoak oso antzekoak dira kasu horietan. Baina programa honen alderdi garrantzitsuena, eta guretzat erakargarriena, prebentzio lana da.

**B.L.U.:** Lehen ere egiten zen, baina era isolatuago batean. Ez zegoen programa zehatz bat errealitate honi aurre egiteko, jarduera solteak baizik. Aldaketa handiena hor dakar KiVak, sistematizatutako, egituratutako prebentzio lana. Jarduera piloa horretara bideratua ikuspegi horrekin eta lanketa konstante bat.

**N. Udarregi Ikastolan, jazarpen kasuen kopurua kezkagarria da?**

**E.G.R.:** Lehen Hezkuntzan eskuhartzeak hiruzpalau egin izan ditugu eta denak ez dira jazarpenera heltzen. Aurretik heldu nahi izaten diogu egoera horri. DBHn ere antzeko edo gehixeago izango dira. Finlandiko unibertsitatearen arabera, 1.000 ikasle dituen ikastetxe batean 5-6 jazarpen kasu egoten dira urtean. Gu inguru horretan gabiltza.

# “Egun kontzientzia handiagoa dago”

**NOAUA! Sarritan, kasuok detektatzea ez da erraza izango?**

**Beñat Larrañaga Urdanpilleta:** Ikastolan ematen dira halako egoerak, baina ematen direnean izan daiteke sarrera-irteeretan, patioan, eskolaz kanpoko jardueretan… Irakaslea edo gurasoa presente badago, ez dira ematen normalean halako jarrerak. Normalean, ikasleak bakarrik dauden uneetan ematen da. Denon artean harremana badago, horiek guztiak detektatzea askoz errazagoa izango da. Horregatik saiatu gara beste herri eragile eta hezitzaile talde desberdinekin elkartzen.

**N. Programa honek zer nolako baliabideak eskaintzen ditu?**

**Eli Goikoetxea Roteta:** Adin ezberdinetarako bi unitate didaktiko, gelan lantzeko jarduera piloarekin. Eta jazarpen kasuekin zuzenean lan egiten duen KiVa taldea. Gero aparte, muralak, KiVa ikastola garela ikusteko eta segurtasuna bermatzeko zeinengana jo behar den ikusgarri egingo duten petoak…

**N. Jendetsua izan zen gai honi buruz gurasoekin egin zenuten aurkezpen bilera. Gai honekiko kezka eta sentsibilizazio maila handiagoa dela erakusten du horrek?**

**B.L.U.:** Ezkutuan egon ohi den gai bat da eta horrek gurasoei kezka berezia sortzen die. **E.G.R.:** Egun kontzientziazio handiagoa dago. Egun jabetzen gara ume hori sufritzen ari dela eta zerbait egin behar dugula ume horiengatik.

**N. Guztion elkarlana beharrezkoa izango da.**

**B.L.U.:** Egin izan diren azterketen arabera, ikasleen %60a edo gehiagok jazartutako pertsona babesten du. Talde hori handiena dela ikusita, horiengan kontzientziatzen saiatu nahi da. Horien lana eta indarra balorean jartzea bilatzen dugu.

**E.G.R.:** Ikuskera aldaketa bat eskatzen du. Lehen babestu edo ezer egiten ez zutenak asko ziren, baina horiek denak jazartuaren aldera pasatzen badira, erasotzailea deiturikoa babesik gabe geratzen da. Helburua hori da. Ariketa asko enpatia eta bestearen tokian jartzera sustatzera bideratuak daude.

**N. Jazarpen kasu bat egongo balitz, nola jokatu behar da?**

**E.G.R.:** Jazarpen kasu bat egon litekeela susmatzen bada, ikastolan lehenbailehen jakinaraztea eskatzen dugu eta ikastolarengan konfiantza izatea. Gero informazio bilketa egingo genuke eta jazarpen kasua den edo ez egiaztatu. Jazarpen kasua ez bada, baina landu behar bada, beste modu batera landuko da. Jazarpen kasua dela ikusiko bagenu, jazartua izan den ikaslearekin eta ikusi duenarekin hitz egingo genuke eta datuak bildu. Horren arabera jazartzailearekin bilduko ginateke. Denei, berriro ez gertatzeko bete beharrekoa izango den konpromiso bat eskatzen zaie. Jarraipen bilerak egiten dira gero guztiekin, konpromisoa betetzen ari den edo ez ikusteko. Normalean bilerok oso eraginkorrak izaten dira, ia %90 gutxitzen dira jazarpen kasuak.

**B.L.U.:** Gurasoen kezka izaten da noski seme-alaba jazartua izatea baina jazarlea bera izateak ere kezka sortzen die. Jazarlea balitz, eta hori gertatzen bazaio famili bati, modu lasai batean hartu behar da. Ez da estigmatizatu nahi inor. Lanketa bat egin beharko da noski jazarlearekin. Portaera aldatzeko konpromiso batzuk eskatu beharko zaizkio eta irtenbide bat eman. Umeok gainera izan ditzakete beste arazo edo behar batzuk. Hor ere lanketa egin beharko da.



**Udarregi izan da programa honetara batu den ikastoletako bat.**

*ELI GOIKOETXEA*

***“Ariketa asko enpatiara eta bestearen tokian jartzera bideratuak daude”***

## Fenomeno global eta larria

- Ikasleen %10ak jasan dute edo jasango dute bullyinga.
- Ikasleen %8 inguru izan dira edo izango dira eskola jazarpenaren egile eta %7 haien laguntzaile.
- Ikusle edo lekukoen %20a erasotzailearen alde agertzen dira (Laguntzaileak batuta, %27), %17 biktimaren alde.
- %34a ez da ohartzen eskola jazarpenaz.
- KiVari buruzko informazioa eta baliabideen berri: kivaprogram.net/basque

## KiVa programaren ardatzak

- Definizioa: “KiVa bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako programa berritzailea da, jazarpenari eta haren mekanismoei buruzko punta-puntako ikerketak baliatuz garatu dena”.
- Jazarpen kasua izateko bete beharreko 3 baldintzak: nahita egindakoa, errepikakorra izatea eta botere erlazioa egotea.
- Jazarpen motak: ahozkoa, zeharkakoa (bazterketa, zurrumurruak), fisikoa, ziberjazarpena.
- KiVa-ren lan ardatz nagusiak: prebentzioa, esku-hartzea eta jarraipena.
- Helburu nagusiak: jazarpen kasuak murriztea; eragoztea; eragindako ondorioak apaltzea.
- Jazarpen kasuei aurre egiteko KiVA taldea osatu du Udarregi Ikastolak, LH eta DBHko hezitzaileekin.
- Ikasle, irakasle nahiz gurasoentzako baliabideak eskaintzen ditu KiVak. Tartean gurasoentzako gida, ikasgeletan lantzeko materiala, KiVa ikastola dela ikusgarri egiten duten petoak…
- Emaitza onak izan ditu: Guztiz desagertutako kasuak: %78,2. Gutxituak: %19,5. Mantendu direnak: %2,1. Gehitu diren kasuak: %0,3. KiVak dakartzan ondorio positibo gehiago: eskola barruko giroa hobetzea, besteei laguntzea ohiko bihurtzea, gelan gustura sentitzea, ikasteko motibazio handiagoa.
- KiVA programak martxan jarri dituzten herrialdeak: Italia, Herbehereak, Erresuma Batua. Euskal Herrian 52 ikastoletan martxan (tartean Udarregi Ikastolan).
- Programa saritua: 2009an Krimena Prebenitzeko Europako Saria jaso zuen, Artikulu Onenaren Gizarte Politikako Saria 2012an eta lau Sari Nazional 2008, 2010, 2011 eta 2012an.

# Muralaren inaugurazioa, elkartasun adierazpena

Sorterritik urrun daudenekiko elkartasun eta maitasun txoko berria du Usurbilek, Zubiaurrenea kaleko mural berrian. Otsailaren 24an Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko elkarretaratzean inauguratu zuten, desio argi bat adieraziz: "halako muralak, horrelako kontzentrazioak, aspaldi egiten ditugun ekimen eta aldarrikapenak egin behar ez izatea. Horrek esan nahiko luke preso eta iheslari guztiak gure artean, etxean izango genituela. Ahalegin horretan jarraituko dugu tinko, denok batera lortu arte".



**Aurreko ostiraleko elkarretaratzea mural berriaren aurrean egin zuten.**

118 lagun bildu zituen mobilizazioan egon ezin izan zuten bi lagun ere gogoan hartu zituzten; Olatz Lasagabasterren ama eta izeba, Mari Karmen eta Arantza Anza ahizpak. Mari Karmenek Alaba bisitatu eta Xua biloba ezagutzera joan zen aurreko hilean Valentziara, eta gaizki sentitu ostean, 33 egun pasa ditu bertako ospitaleko ZIUn. Plantan da jada. Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik berri eman zutenez, Mari Karmenekin hitz egiteko aukera izan dute. "Ikaragarria izan da jaso dugun babesa. Denbora honetan guztian ezin nuen adierazi, baina hala sentitzen nuen. Eskerrik asko benetan denoi!", hortxe Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik, azken elkarretaratzean usurbildarrei helarazi zizkieten Mari Karmenen hi–tzak. Bere ahizpa Arantzak ere mezu bera helarazi nahi izan du: "Esan usurbildarrei eskerrik asko, bihotz-bihotzez".

Larri gaixorik dauden presoen egoera (Oier Gomez eta Aitzol Gogorzarena), eta dispertsioaren ondorioz azken aldian senideek izandako istripuak salatu zituzten. Eta kezka azaldu zuten, Olatzen espetxe berean dagoen Sara Majarenas eta Izar haurtxoa bereizi ditzaketelako berriz. Martxoaren 2an Izarrek espetxea utzi beharko du. Ostegun honetan manifestazioa egingo da, 19:00etan Donostiako Bulebarretik abiatuta, Izarrekin Plataformak deituta.

**Harpidetza afaria**
Usurbilen Nahi Ditugu-k jakinarazi duenez, presoei prentsa helarazteko harpidetza afaria apirilaren 1ean egingo da.

# "Lalala soinu gela", 0-3 urteko haurrentzako musika tailerra

Lalala soinu gela haurrei eta beren familiei zuzenduriko musika tailerra da. "Soinuaren bitartez txikien gaitasun musikal, psikomotore, kognitibo eta sozioafektiboak garatuko dira, haurra eta bere familiaren arteko lotura indartuz", Zumartetik aditzera eman digutenez.
Non: Zumarte Musika Eskolan.
Noiz: Martxoak 18, larunbata.
Prezioa: 15 euro, familiako.
Izen ematea: Zumarten, (Martxoak 6-10 bitarte).


**Izena eman behar da aldez aurretik.**

## Arrate Elkartearen urteko batzarra

**Martxoak 5 igandea**

- 10:30 Meza nagusia.
- 12:00 Urteko balantzea.
- 13:30 Bazkaria egoitzan. "Eman ezazu zure izena lehenbailehen!".
- Deitzailea: Arrate Egoitzako Talde Eragilea.

**Gipuzkoako Karta Txapelketa**
Gipuzkoako jubilatu elkarteak lehian jartzen dituen txapelketako herri mailako finala, martxoaren 11n jokatuko da 17:00etan hasita, Aginagako Arrate Egoitzan.

## Udarregi Biziberritu prozesua, martxan

Otsailaren 25ean amaitu zen gaiak proposatzeko epea. "Hiru gai jarri dituzte zenbait gurasok mahai gainean: urteko soberakin edo galerekin zer egin erabakitzea, gurasoek hilero ordaintzen duten kuota finkatzea eta DBHn lanaldi jarraia zabaltzea".

Hurrengo urratsa: maiatzeko Batzar Orokorrera hiru gai horietako zeintzuk eraman erabakitzea da. "Asmoa da batzar horretara eramatea soilik gurasoen artean interes minimo bat pizten duten gaiak. Minimo hori, egun, 48 familien babesa da (kooperatibako kideen %10a)".

Gai horiei buruz gurasoen artean hitz egiteko, eta nahi duenak bere babesa emateko, gela bilerak egingo dira martxoko bigarren hamabostaldian. Xehetasun gehiago: biziberritu.wixsite.com/hasiera web orrian.

ELORZA
OBRAK ETA ERREFORMAK S.L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox. altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno.943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax. 943300045

ETXETRESNEN KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

# Arantza-Beintza irteeran izena emateko azken egunak

Andatza M.K.T.-k martxoaren 12rako antolatu duen Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko 22 kilometroko 3. etapa osatzeko izen emateko epea martxoaren 8an itxiko dute. Joan etorrirako autobusa eta ibilbide amaieran Beintzako Orbela aterpetxean egingo den bazkariko gastuei aurre egiteko 25 euroko ordainketa egin beharko da, kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 30080259163005430321

Kutxabank: 20955069071068489805

Informazio gehiago: andatza.com




**Bidasoako Kontrabandistak ibilbidea osatzen ari dira Andatzako M.K.T.ko kideek. Argazkia: Mikel Zubelzu.**

# Baionako Bernat Etxepare lizeoa laguntza beharrean da

Txiki eta zaharkitua geratu zaie Baionan kokatua dagoen lizeoa eta 2017-18 ikasturterako prest egongo den berri bat eraikitzen ari dira. 300.000 euro behar dituzte lizeo berria ekipatzeko. Laguntza biltzeko, “Euskararen sagartzea” izeneko elkartasun kanpaina abiatu dute. Norberak eman dezakeen laguntzaren truke, “sagarrondo bat landatuko da, zerorrek landatuz nahi duzun lekuan edo guk “euskararen sagartzean” (Baionako lizeo ondoan) landatuz”.

Baiona elkartasun kanpaina honetan diru ekarpenak egiteko aukera zabalik duzue apirilaren 7ra arte, NOAUA!n, Alkartasuna Kooperatiban, Lizardi liburudendan eta Udarregi Ikastolan. Honez gain, eragile, elkarte, kooperatiba eta enpresei ere deia luzatzen zaie kanpaina honetan parte hartzeko. Honatx harremanetarako telefono zenbakia: 688 639 910. Apirilaren 8an Usurbilen ospatuko den 5. Dantza Egunean, Bernat Etxepare Lizeoko ikasle eta irakasleak Usurbilera etorriko dira. Laguntza emateko postua jarriko dute frontoian.



**300.000 euro behar dituzte lizeo berria ekipatzeko.**

Usurbil K.E.-Urola EK

## Eskubaloia, selekzioaren deialdiak

**Martxoak 5 igandea**

■ 16:00 Gipuzkoako jubenil mutilen selekzioaren entrenamendua, Donostiako La Salle Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko kide Joseba Errazkin, Eneko Iribar eta Julen Nazabal deitu dituzte hitzordu honetara.

■ 18:00 Gipuzkoako jubenil nesken selekzioaren entrenamendua, Donostiako La Salle Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko kide Eider Makazaga eta Nagore Lertxundi deitu dituzte



## Pilota partidak

**Martxoak 2 osteguna**

■ EHko Txapelketa eskuz binaka final erdia, 21:00etan Usurbilen. Pagazpe (Santxo-Gorrotxategi)-Txukun Lakua.

**Martxoak 3 ostirala**

■ EHko Txapelketa eskuz banaka final erdia, 19:15ean Zumarragan. Pagazpe (Quina)-Danak bat (Madariaga).

## Eskubaloi partidak Oiardo Kiroldegian

**Martxoak 4 larunbata**

■ 10:00 Alebin mutilak, Buruntzaldea:
Udarregi 5B-Udarregi 5A

■ 10:00 Alebin mutilak, Buruntzaldea:
Udarregi 6B-Udarregi 6A

■ 11:00 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa:
Udarregi A Usurbil-Egia 1

■ 12:15 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Neumaticos Bayona Pulpo

■ 15:45 Kadete mutilak, Euskal Liga:
Usurbil K.E.-Urduliz

■ 17:30 Kadete neskak, Foru Aldundiko Txapelketa: Usurbil K.E.-Bera Bera

■ 19:30 Senior mutilak, 1.nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Trapagaran

**Martxoak 5 igandea**

■ 10:30 Alebin neskak, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa:
Usurbil K.E.-Zarautz A ZKE

■ 11:30 Alebin mutilak, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa:

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Patri
Patrienea jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak. asteazkenetik larunbatera
943 362725 · 688 690 361

Josue Igeltseritza s.l.
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

## ETXEBIZITZA

### Salgai

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. Tel. 630 490 844.

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. Eguzkitsua, berrituta. Informazio gehiago: 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailez helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus
Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea.Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

### Alokairuan

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta sukaldea. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 786 .

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

### Salmenta, garajeak

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaintzak

Zubietan, etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Lanaldi erdirako 695 783 202.

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

### Lan eskaerak

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenaretzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketan, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatetxe batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.



**Zorionak pottoki!**
zure lehenengo urtebetetzean! Muxu asko asko etxekoen partetik.



**Zorionak Laia!**
Dagoeneko bi urtetxo bete dituzu. Muxu handi bat mattia!!



**Zorionak Nahia!**
Eta muxu asko familiaren partez!

**OHARRA:** 2017ko martxoaren 10ean aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: martxoak 6 astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailez, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo hospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsu bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketan. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

**BESTELAKOAK**

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituena. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoan entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilita) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzaingora haurrentzako botika eta higienerako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoan galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontaktua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

**TRUKEAN, OPARI**

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

# Telefono interesgarriak

| | |
|---|---|
| Udala | 943 371 951 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 |
| Sexu Aholkularitza Gunea | 697 919 516 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 |
| Haur Eskola | 943 374 061 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 |
| KZgunea | 943 023 684 |
| Oiardo Kiroldegia | 943 372 498 |
| Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 |
| Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 |
| Etumeta AEK euskaltegia | 607 609 379 |
| Kalezar Eguneko Zentroa | 943 365 249 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 |
| Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 |
| Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 |
| Usurbilgo Salbatore Parrokia | 943 361 239 |
| Noaua! Kultur Elkartea | 943 360 321 |
| Abere-Landare Babeslea | 943 376 650 |
| Taxia (Angel) | 607 928 770 |
| Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza) | 677 373 466 |
| Eusko Tren | 943 470 976 |
| LurraldeBus | 943 000 117 |
| Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 |
| Anbulategia | 943 362 013 |
| Amenabar botika (lehen Oa) | 943 376 076 |
| Iturralde botika | 943 363 395 |
| DYA | 943 464 622 |
| Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Emergentziak | 112 |
| Genero-indarkeria, arreta | 900 840 111 / 016 |
| Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Kutxabank | 943 361 202 |
| Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Banco SabadellGuipuzcoano | 943 370 006 |
| Banco Popular Español | 943 370 411 |
| BBVA | 943 377 155 |
| Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| Telefonica | 1004 |
| Euskaltel | 900 840 840 |

# Goardiako farmaziak Martxoak 02 - martxoak 12

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Osteguna** | 02 | GIL | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Ostirala** | 03 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Larunbata** | 04 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Igandea** | 05 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Astelehena** | 06 | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte |
| **Asteartea** | 07 | GANDARIAS-URIBE | Iñigo Loiola 9. Lasarte |
| **Asteazkena** | 08 | ORUE | Jaizkibel plaza 2. Lasarte |
| **Osteguna** | 09 | DE MIGUEL | Kale Nagusia 32. Lasarte |
| **Ostirala** | 10 | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte |
| **Larunbata** | 11 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |
| **Igandea** | 12 | GIL MARTIN | Kale Nagusia 24. Lasarte |

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.**

# Agenda martxoa

## 03 ostirala

- **Jai ereduen inguruan hausnartzeko bilera irekia.** 17:30ean Potxoenean. Deitzaileak: Aginaga, Zubieta eta Usurbilgo gazteak.

## 04 larunbata

- **"Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak", Aitor Etxeandiaren eskutik.** 9:00etan Potxoenean.
- **Maiatzaren 7ko galdeketaren aurkezpena Zubietan.** 12:00etan Errebote plazan.

## 05 igandea

- **Lilatoia Donostian** Usurbildarren argazkia: 10:00etan Bulebarreko erloju ondoan.
- **Herritzartuk deituriko ekitaldia** eguerdiko 12:00etan Udaletxeko plazan.
- **"Maitagarri amandrea" filma** Sutegin. 17:00etan.

# "Maitagarri Amandrea", zinea euskaraz haurrentzat

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearekin elkarlanean antolaturiko haurrentzako euskarazko zine zikloaren baitako proiekzioa igandean, martxoak 5, arratsaldeko 17:00etan hasita Sutegin.

"Maitagarri Amandrea" filma ikusteko aukera egongo da, egunean bertan eskuragarri egongo diren 3 euroko sarreren truke. "Anabelek (Mara Wilson) maitagarri amandre bat eduki nahi zuen, baina nekez pentsatuko zuen bere guraria bete eta amandre hark (Martin Short) Murray izango zuela izena. Anabelek "artxila-murtxila" esateko denbora ere ez du behar izan Murrayk esperientziarik eta zuztarrik ez duela konturatzeko, baina halabeharrez abentura zoro eta barregarri batean elkartu dira biak", hortxe igandeko filmeko sinopsiaren aurrerapena.



**Igande honetan, arratsaldeko 17:00etan. Sarrerak egunean bertan salgai.**

# Astelehenean, Jai Batzordearen bilera

Ekainaren 29tik uztailaren 2ra ospatuko diren Usurbilgo jaiak antolatzen segitzeko Jai Batzordearen bigarren bilera, martxoaren 6rako finkatu da, 18:00etan Potxoenean. Festetarako norbanako zein eragileek proposatu nahi dituzten aldaketa edo ideia berrien bilketa egingo da saio honetan. Otsailaren 13ko lehen saioan, gogoan izan, Jai Batzordeak festak hutsetik antolatzen hastea erabaki zuela. Eredua irauli nahi dute, jaien egiteko moduan, edukian, eta funtzionamendu oinarrietan eragin nahi dute. Gaion hausnarketa prozesu betean da bilgunea.

## Datozenak

### Pello Añorga ipuin kontalaria Aginagan

Martxoaren 8an asteazkena, arratsaldeko 18:15ean Aginagako ludotekan. Antolatzailea: San Praixku Guraso Elkartea.

### Martxoaren 10ean, bertso-afaria Artzabalen

Martxoaren 8ari begira ekimenak antolatzen ari dira Matrakak, Usurbilgo Talde Feminista eta Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila. Lehen hitzordua, martxoaren 10erako deitu dute. Azken urteotan arrakastatsua suertatu den bertso-afaria ospatuko da Artzabalen, Onintza Enbeita, Uxue Alberdi eta Ane Labakarekin.

**Txartelak jada salgai**

Txartelak aurrez erosi ahalko dira 16 eurotan, Aitzaga eta Bordatxo tabernetan.



**Onintza Enbeita (argazkian), Uxue Alberdi eta Ane Labaka arituko dira kantuan.**









# OSASUN GIDA 2017


Irati Ibargoien
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA
Pilates terapeutiko pertsonalizatua
· Errehabilitazioa
· Kirol fisioterapia
· Fisioterapia traumatologikoa
· Fisioterapia neurologikoa
· Terapia funtzionala
· Osteopatia
Zentro berria Usurbilen!
Puntapax kalea 6B, behea ezk.
20170 USURBIL

USURBIL OPTIKA
Bigarren lente parea doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urruneko lenteetan
Zubiaurrenea, 10 · ✆ 943 370 269 · 675 708 654
2. lente parea doan
2x1
PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Oinutsik
podologia zentroa
943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil
Oinutsik
podologia zentroa
✆ 943 11 09 54
· Azterketa biomekanikoak · Plantilak
· Papilomak · Erreflexoterapia
· Kolagenozko infiltrazioa · Kiropodiak

Iturraldebotika
Tomas Iturralde botika
108/12 PEZ
Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua
Dermofarmazia
Produktu homeopatikoak
Maisu formulak
Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 www.iturraldebotika.com

Lizarralde ORTOPEDIA
✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
✓ Produktu ortopedikoen **alokairu zerbitzua**
(oheak, aulkiak, garabiak...)
✓ Arreta pertsonal eta **espezializatua**
Teknikari ortopeda kontsulta · Aholkularitza · Produktu gama zabala
Kazkozuri 1 baxua, Oiartzun - **943 543 585/ 688 678 583**
**www.lizarraldeortopedia.eus**

LOGOPEDIA
Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNTZIONALA
• Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
• **Ahotsaren tratamenduak:** disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
• **Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak:** dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...
Aurreko hitzordua: 635 701 374

Osasun gidan azaltzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus


URDAIRA
Sagardotegia
astelehenak itxita
Aginaga 943 37 26 91


OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA
943 55 68 94
Osinaga bailara, HERNANI


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik maiatzak 7ra
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867


Etorri eta dastatu sagardo berriak
30 Urte baino gehiago Usurbildarrei
sagardo hoberenak eskeintzen.
Iruin Sagardotegia
Iruin, beti zugandik gertu.
943.361.229
Petritza bidea 12, Zubieta


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81


SAIZAR
943 37 39 95
Kalezar 39, USURBIL sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com


SAGARDOTEGIA
aginaga
Hotela * *
URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA
943 36 67 10
Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com


Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!
%100 bertako sagarra
AIALDE
BERRI
Tel: 943 365 031
Santuenea